

# **EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009/10**

## **DBH**

**AZken TXostena**

**2010eko urria**

**Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua**  
**Ebaluazio Atala**

## AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera .....</b>	<b>3</b>
<b>2. Irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz.....</b>	<b>6</b>
2. 1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatuen kopurua	
2. 2 Gaitasun mailak: esanahia	
2. 3 Itemak: informazioa, adibideak eta mailen araberako sailkapena	
2. 4 Emaiza orokorra	
2. 5 Puntuazioen banaketa	
<b>3. Irakurtzeko gaitasuna euskaraz .....</b>	<b>16</b>
2. 1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatuen kopurua	
2. 2 Gaitasun mailak: esanahia	
2. 3 Itemak: informazioa, adibideak eta mailen araberako sailkapena	
2. 4 Emaiza orokorra	
2. 5 Puntuazioen banaketa	
<b>4. Matematikako gaitasuna .....</b>	<b>27</b>
4. 1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatuen kopurua	
4. 2 Gaitasun mailak: esanahia	
4. 3 Itemak: informazioa, adibideak eta mailen araberako sailkapena	
4. 4 Emaiza orokorra	
4. 5 Puntuazioen banaketa	

# 1. Sarrera

Hezkuntzaren Lege Organikoaren 29. artikulua ezartzen du DBHko 2. maila bukatzean ikastetxe guztiek, beren ikasleek lortu dituzten oinarrizko gaitasunen ebaluazio diagnostikoa eginen dutela. Ebaluazio honek ondoko ezaugarriak izanen ditu:

- Zentsala izanen da, ikasle guztiek egin beharrekoa.
- Oinarrizko gaitasunen gainekoa.
- Informatiboa, ikasleendako eta familiendako.
- Prestakuntzakoa, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

2010eko ebaluazio diagnostikoa bideratu da matematikako gaitasunera eta heziketa-hizkuntzetako irakurmenera. Ebaluatutako gaitasun kopurua murriztu da 2009ko ebaluazioarekin alderatuta, Ebaluazio Institutuak 50 ikastetxeetan egin duen diagnostikoaren ebaluazio orokorarekin kointzidentzia dela eta.

Probak erreferentziatzen dute 2008-09 ikasturtean argitaratu eta ikastetxeetara zabaldutako ebaluazioaren esparru teorikoa.

Errendimendu probak Ebaluazio Atalak prestatu ditu, lanean ari diren maisu/maistrek taldeka egindako lanetik abiatuz. Beraz, kanpokoak izan dira, ikastetxeendako eta ikastetxe guztietan egun beretan aplikatu dira eta aurrez finkaturiko irizpideen arabera zuzendu dira.

Maiatzean, ikastetxeek txostena jaso zuten ikasleen emaitzekin, ondoko helburuarekin: ikasle bakoitzaren gaineko txostena egitea. Txosten hori familien esku utzi zen ikasturte bukaeran.

Ekainean, ikastetxeek txostena jaso zuten ikasleen emaitzekin eta Nafarroako datu orokorrekin: batez besteko puntuazioak, ikasleen ehunekoak gaitasun maila bakoitzean eta asmatuen ehunekoak itemetan. Horrela, ikastetxeek emaitzak testuingurura ekarri ahal izan zituzten.

Irailan, ikastetxeek txosten osatuagoa jaso zuten. Txosten horretan informazioa formatu grafikoan eskaini zen, emaitzak adieraziz 500 puntuko eta 100eko desbideratze tipikoko batez besteko puntuazio eskalan.

Txosten honek aurreko informazioa osatzen du, ikuspuntu orokorra batetik, ikasle guztien alderdian eta probaren ezaugarrietan oinarrituta. Txosten honetan garrantzia hartzen du gaitasun mailen esanahiak, itemak gaitasun mailen arabera sailkatzeak, item esanguratsuen inguruko iruzkinak, ebaluatutako prozesua item bakoitzarekin identifikatzeak eta puntuazioen banaketa grafikoak.

## Izaera zentsala eta salbuespenak

Bigarren Hezkuntzako 2. kurtsoko matrikula osoa, 2009-10 ikasturtean, 5.940 ikaslekoa izan zen; ikasle hauei zuzendu zaie ebaluazio diagnostikoa. Ebaluazio orotan bezala, kontuan izan behar da gerta daitekeela ikasle batzuek ezintasun tekniko bat izatea probak beharrezko baldintzetan egiteko, eta hori dela kausa, hiru salbuespen arrazoi ezarri ziren: gure hezkuntza sisteman sartu berriak direlako probaren hizkuntza ezagutzen ez duten ikasleak (urtebete baino gutxiago); NHBBZn zentsaturiko ikasleak, urritasun psikiko edo intelektuala dutenak edo mugimen edo zentzumen urritasuna.

Gorabehera hauen aplikazioak ekarri zuen probak egin zituen azken populazioa 5.735 kasu izatea.

Ondoko taulan egindako ebaluazioaren izaera zentsalaren eta ebaluazioaren hedaduraren gainean iritzia ematea ahalbidetzen duten datuak ematen dira:

### Matrikulazio eta parte hartze datuak

	Bigarren Hezkuntza	
	Kopurua	%
<b>Matrikulazioa, osotara</b>	5.940	100
<b>Salbuetsitako ikasleak</b>	205	3,45
<b>Populazioa</b>	5.735	96,55
<b>Probak egin zituztenak</b>	5.650	98,52
<b>Probak egin ez zituztenak</b>	85	1,48

Salbuetsitako 205 ikasleetatik batzuek probak egin zituzten eta banakako txostena erdietsi zuten.

Banakakoa, kasu horietan tutoreek ebaluazioaren gaineko informazioa izatea egokia ote den baloratu dute; informazio hori, logikoki, kasu zehatz bakoitzaren testuinguruan jarri dute.

Txosten honetan azalduko emaitza orokorretan ez dira kontuan hartu salbuetsiriko ikasleak.

Probak aplikatzeko protokoloan adierazten zen ebaluazioaren egunean bertaratzen ez ziren ikasleek ondoren eginen zutela proba. 85 ikaslek ez zituzten probak egin hala egokitu zitzaienean. Horrek badirudi adierazten duela ikasle horiek absentzia luzeak izan zituztela maiatzean.

## 2. Irakurtzeko gaitasuna Gaztelaniaz

### 2.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen kopurua

Proba bost testu idatzik osatu dute, ondoko izenburuekin: “*Memorias de Gus*”, “*La diferencia entre gasolina y diésel*”, “*Teoría de los 4 humores*”, “*Aprender de los fracasos*” eta “*En rebajas compra con criterio*”. Horietako bakoitzetik 5 eta 7 item artean atera ziren. 32 itemenetatik 31 balioetsi dira puntu 1ekin, eta 1, 2 punturekin. Kasu honetan puntu 1eko puntuazio partziala onartzen da.

Itemak zailtasun maila desberdinekoak dira; batzuk oso errazak dira, %92ko asmatuekin; beste batzuk, aldiz, hagitx zailak dira, eta ikasleen %16ek baino ez dituzte asmatu.

32 galderei dagozkien lanak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesu desberdinekin harremanetan daude. Ondoko taulan azaltzen dira probako itemen ezaugarri zenbait: *emandako gehienezko puntuazioa, tipologia irekia edo itxia, zailtasun maila eta ebaluaturiko prozesua*

Itemen ordena taulan eta probako koadernotxoan, bera da.

#### Irakurtzeko Gaitasuna gaztelaniaz

Item zkia.	Gehienezko puntuazioa	Irekia/Itxia	Asmatuen %	Ebaluaturiko prozesua
1	1	Itxia	85,0	Interpretazio orokorra
2	1	Itxia	79,9	Formaren gainean hausnartzea
3	1	Itxia	45,6	Interpretatzea
4	1	Itxia	53,0	Interpretatzea
5	1	Itxia	66,3	Interpretatzea
6	1	Itxia	47,8	Informazioa bilatzea
7	1	Itxia	92,1	Informazioa bilatzea

8	1	Itxia	65,6	Interpretatzea
9	2	Irekia	71,5	Edukiaren gainean hausnartzea
10	1	Itxia	87,9	Formaren gainean hausnartzea
11	1	Itxia	84,5	Informazioa bilatzea
12	1	Irekia	64,2	Informazioa bilatzea
13	1	Irekia	69,4	Informazioa bilatzea
14	1	Itxia	63,0	Informazioa bilatzea
15	1	Itxia	52,3	Informazioa bilatzea
16	1	Itxia	63,5	Ulermen orokorra
17	1	Itxia	87,6	Ulermen orokorra
18	1	Itxia	66,1	Informazioa bilatzea
19	1	Itxia	66,4	Ulermen orokorra
20	1	Itxia	83,0	Informazioa bilatzea
21	1	Itxia	49,9	Interpretatzea
22	1	Itxia	41,1	Interpretatzea
23	1	Itxia	86,3	Ulermen orokorra
24	1	Itxia	60,8	Formaren gainean hausnartzea
25	1	Itxia	63,8	Ulermen orokorra
26	1	Itxia	16,0	Ulermen orokorra
27	1	Itxia	84,9	Informazioa bilatzea
28	1	Itxia	69,9	Interpretatzea
29	1	Itxia	51,5	Formaren gainean hasunartzea
30	1	Itxia	75,1	Ulermen orokorra
31	1	Itxia	67,8	Interpretatzea
32	1	Irekia	67,9	Interpretatzea

## 2.2 Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Gaitasuna mailaka banatu da, ondoko esanahiarekin:

### **1. MAILA**

Maila honetan dauden ikasleak gai dira informazio literala ulertzeko, bai narrazio testuetan eta bai azalpenezkoetan, betiere informazio hori testuan aurkitzeko erraza denean. Ez dute zailtasunik testuko esaldiak eta adierazpen puntualak interpretatzeko eta zailtasunik gabe ulertzen dute horien esanahia. Testu baten ideia nagusiaz eta honen helburuz jabetzen dira oso agerikoak direnean. Ekintzen asmoak ulertzen dituzte, horiek agerikoak direnean ere.

### **2. MAILA**

Maila honetako ikasleak, 1. mailako lanak arrakastaz burutzeaz gain, gai dira alderdi horietan haratago joateko; bai informazioa bilatzea eskatzen duten lanen ulermenean (ez dute hainbeste aztarnarik behar eta gai dira ulertzeko, nahiz eta informazioa ez izan hain erraza aurkitzea edo ez izanhain agerikoa ), bai testuaren ulermen orokorra eskatzen duten lanetan (aurreko mailan baino pixka bat inplizituagoa).

### **3. MAILA (+ maila barne)**

Maila honetako ikasleak, aurreko mailetako lanak egiteko gai izateaz gain, gai dira arrakastaz ebazteko informazioa bilatzea eskatzen duten lanak, informazioa testuaren zati batean fokalizaturik egon beharrean, testuaren bi zatietan dagoenean ere. Gai dira iritzi bat justifikatze aldera arrazoiak bilatzeko. Zati baten edukia interpretatzen dute, kontuan izanda testuaren testuinguru zabalagoa. Testutik eratortzen diren ikuspuntu eta jarrerak ulertzen dituzte. Ulermen orokor ona dute, testuaren zentzuaz eta tesiaz jabetzen dira. Testuaren egitura bereganatzen dute (indukziozkoa, dedukziozkoa...)

#### **Mailen definizio numerikoa**

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio orokorra erdiestea, ondoko taulan adierazitakoaren arabera:

	<b>Irakurmena Gaztelaniaz</b>
	<b>Puntuazio tartek</b>
<b>1. maila</b>	0-15
<b>2. maila</b>	16-19
<b>3. maila</b>	20-27
<b>3+ maila</b>	28-33



### 2.3. Itemak: informazioa, adibideak eta mailen arabeko sailkapena

Maila bereko ikasleen joera da galderei zuzen erantzutea, zailtasun maila batera iritsi arte. Huts egiten dute zailtzat jotzen dituztenetan. Hortaz, azken hauek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak, eta ondorioz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hausnarketarako helburu izan daitezkeenak.

Adibidez, 1. galdera erraza izan da ikasle guztiendako, marrazkiko pertsonaien izaera ongi interpretatu dute. 16. galdera testuaren ulermen orokorrari buruzkoa da, eta aurrekoa baino zailagoa da. 13. galderak informazioa aurkitzeko lana planteatu du, eta ez da izan pentsatzen ahal zen bezain agerikoa. 22. galdera interpretazio prozesu bat da, eta soilik ikasle gaituenek egin dute ongi.

Aipatutako galderak jarraian azaltzen dira.

#### 1. Zure ustez nolakoa da pertsonaien izaera?

- A. Gus eta bere aita lasaiak eta atseginak dira.
- B. Gus eta bere aita urduri daudela ematen du.
- C. Ez aitak ez semeak ez dute zoriontsu direnik ematen.
- D. Ziurtatu daiteke biak oso zoriontsuak direla.

<b>Erantzun zuzena</b>	C
<b>Puntuazioa</b>	Puntu 1
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Irakurketa prozesua</b>	Interpretazio orokorra
<b>Gaitasun maila</b>	1. maila
<b>Asmatuen % 1. mailan</b>	77,4
<b>Asmatuen %</b>	85,0

#### 16. Adieraz ezazu zein den zure ustez irakurri berri duzun testuaren gaia.

- A. Humoreen teoria medikuntzan: jatorria eta ebaluazioa.
- B. Humorismoa medikuntzan mendeetan zehar.
- C. Humoreen teoriaren aurkezpena eta ukapena historian zehar.
- D. Humorismoaren iraupena egungo medikuntzaren praktikan.

<b>Erantzun zuzena</b>	B
<b>Puntuazioa</b>	Puntu 1
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Irakurketa prozesua</b>	Ulermen orokorra
<b>Gaitasun maila</b>	2. maila
<b>Asmatuen % 2. mailan</b>	66,1
<b>Asmatuen %</b>	79,9

13. Testutik ondorioztatzen denez, zein izen ematen zitzaien medikuei aspaldian?

<b>Erantzun zuzena</b>	“Fisikoak”
<b>Puntuazioa</b>	Puntu 1
<b>Mota</b>	Irekia
<b>Irakurketa prozesua</b>	Informazioa bilatzea
<b>Gaitasun maila</b>	3. maila
<b>Asmatuen % 3. mailan</b>	69,4
<b>Asmatuen %</b>	61,9

22. Testuaren arabera, zer litzateke egokiagoa krisitik ateratzeko?

- A. Jende positiboz inguratzea, gure burua animatu eta lagundu gaitzaten.
- B. Gertatu denaren eta sortzen dituen sentimenduen artean bereiztea.
- C. Gauzei garrantzirik ez ematea, azkenean dena konpontzen da.
- D. Bakoitzak bere konponbidea aurkitu behar du, ez dago errezeta baliagarririk.

<b>Erantzun zuzena</b>	B
<b>Puntuazioa</b>	Puntu 1
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Irakurketa prozesua</b>	Interpretatzea
<b>Gaitasun maila</b>	3. maila+
<b>Asmatuen % 3. maila+-en</b>	61,9
<b>Asmatuen %</b>	41,1

Ondoko taulak erakusten du zein item dagokion gaitasun maila bakoitzari, baina ulertu behar da hurbilpenezko erreferentzia kualitatibo eta orientagarri gisa, maila bateko eta besteko ikasleen arteko asmatuen ehunekoen arteko desberdintasuna ez baita beti aski estatistikoki erabat sailkatzeko maila batean.

Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen galderak maila desberdinei dagozkie, ebaluaturiko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute.

<b>Item zkia.</b>	<b>Mailen araberrako sailkapena</b>
1	1. maila
2	1. maila
3	*
4	3. maila
5	3. maila
6	3. maila+
7	1. maila
8	3. maila
9	2. maila. Erantzun partziala 3. maila. Erantzun osoa
10	1. maila
11	1. maila
12	3. maila
13	3. maila
14	3. maila
15	3. maila+
16	3. maila
17	1. maila
18	3. maila
19	3. maila
20	2. maila
21	3. maila+
22	3. maila+
23	1. maila
24	3. maila
25	3. maila

26	*
27	2. maila
28	2. maila
29	3. maila
30	2. maila
31	2. maila
32	2. maila

- Diskriminazio maila baxuko itemak.

## 2.4 Eraitza orokorrak

**Estatistika taula (irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz)**

<b>Kop. osotara</b>	<b>4.362</b>
<b>Gaitasun kop.</b>	<b>4.282</b>
<b>Nesken kop.</b>	<b>2.109</b>
<b>Mutilen kop.</b>	<b>2.173</b>
<b>Gutxienezko puntuazioa</b>	<b>2</b>
<b>Gehienezko puntuazioa</b>	<b>33</b>
<b>Batez besteko puntuazioa</b>	<b>22,08</b>
<b>Desbideratze tipikoa</b>	<b>5,18</b>
<b>Nesken batez bestekoa</b>	<b>22,61</b>
<b>Mutilen batez bestekoa</b>	<b>21,52</b>
<b>1. maila (%)</b>	<b>11,7</b>
<b>2. maila (%)</b>	<b>15,8</b>
<b>3. maila (%)</b>	<b>58,2</b>
<b>3. maila+ (%)</b>	<b>14,3</b>

### Alderdi azpimarragarriak

- Diferentzia handiak daude banakako puntuazioei dagokienez: gehienezko 33 puntuetatik gutxieneko puntu 1era.


- Kopurua osotara eta gaitasuneko kopurua bata bestearekin erkatuz gero, ondokoa da: ikastetxean ez zeudelako proba egin ez duten ikasleen kopurua 80 da.

### Banaketa mailaka

Oso garrantzitsua da ezagutzea zein den ikasleen ehunekoa gaitasun maila bakoitzean, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

Ikasleen ehunekoa maila bakoitzean	
1. maila	11,7
2. maila	15,8
3. maila	58,2
3. maila+	14,3

Irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz



### Alderdi azpimarragarriak


- 10 ikasletatik 7k erdietsi dute 3. maila edo 3. maila+; gai dira beraien adinari dagozkion irakurtzeko prozesuak gauzatzeko.
- 10 ikasletatik kasik 2k irakurtzeko prozesuak oso justu egiten dituzte.
- 10 ikasletatik 1 ez da gai irakurtzeko prozesuak egoki egiteko.

### Banaketa sexuaren arabera

Neskek mutilek baino 1,09 puntu gehiago erdietsi dituzte. Diferentzia hori ez da handia.


Nesken batez bestekoa	22,61
-----------------------	-------

<b>Mutilen batez bestekoa</b>	<b>21,52</b>
-------------------------------	--------------



## 2.5 Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazio orokorren banaketa.



**Alderdi azpimarragarriak:**

Puntuazioen banaketa, banaketa normalarekin erkatuz gero, honakoa da:

- Zorrotzagoa, puntuazioen kontzentrazio handiagoa dago batez bestekoaren inguruan, kurtosia 0,199 da.
- Ez da oso simetrikoa, ezkerrera mugiturik dago, asimetria koefizientea -0,63 da.

### 3. Irakurtzeko gaitasuna euskaraz

#### 3.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %

Proba hiru testu idatzik osatu dute: “Ardi ausarta”, “Bidaia, Kuala Lumpur” eta “Gutuna. Horietako bakoitzetik 11 eta 12 galdera artean atera dira 34 galderetatik 30 baloratu dira puntu 1ekin, eta 4, 2 punturekin. Kasu honetan puntu 1eko puntuazio partziala onartzen da.

Itemak zailtasun maila desberdinekoak dira; batzuk oso errazak dira, %94,8ko asmatuekin; beste batzuk, aldiz, hagitik zailak dira, eta ikasleetatik %15,4k baino ez dituzte asmatu.

34 galderei dagozkien lanak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesu desberdinekin harremanetan daude.

Ondoko taulan erakusten da galdera bakoitzak irakurketa prozesuarekin duen harremana.

Item zkia.	Gehienezko puntuazioa	Irekia/Itxia	Asmatuen %	Ebaluaturiko prozesua
1	1	Itxia	82,6	Informazioa bilatzea
2	1	Itxia	87,5	Interpretatzea
3	1	Itxia	94,8	Ulermen orokorra
4	1	Itxia	85,0	Ulermen orokorra
5	1	Irekia	56,2	Interpretatzea
6	1	Itxia	90,3	Interpretatzea
7	1	Irekia	64,6	Informazioa bilatzea
8	1	Itxia	91,1	Informazioa bilatzea
9	1	Itxia	38,3	Informazioa bilatzea
10	1	Itxia	36,0	Informazioa bilatzea
11	1	Itxia	56,4	Interpretatzea
12	2	Irekia	42,0	Edukiaren gainean hausnartzea
13	1	Itxia	69,6	Ulermen orokorra
14	1	Itxia	83,7	Interpretatzea



15	2	Irekia	42,4	Informazioa bilatzea Interpretatzea
16	1	Irekia	41,3	Informazioa bilatzea
17	1	Irekia	58,0	Informazioa bilatzea
18	1	Itxia	62,8	Interpretatzea
19	1	Itxia	77,7	Informazioa bilatzea
20	2	Irekia	41,8	Informazioa bilatzea /Ulermen orokorra
21	1	Itxia	55,4	Interpretatzea
22	2	Irekia	15,4	Edukiaren gainean hausnartzea
23	1	Irekia	23,1	Edukiaren gainean hausnartzea
24	1	Itxia	76,7	Ulermen orokorra
25	1	Itxia	84,5	Formaren gainean hausnartzea
26	1	Itxia	74,8	Informazioa bilatzea
27	1	Itxia	68,6	Informazioa bilatzea
28	1	Itxia	56,6	Informazioa bilatzea
29	1	Itxia	55,6	Informazioa bilatzea
30	1	Irekia	56,4	Interpretatzea
31	1	Irekia	45,4	Formaren gainean hausnartzea
32	1	Itxia	71,9	Formaren gainean hausnartzea
33	1	Itxia	86,9	Formaren gainean hausnartzea
34	1	Irekia	84,1	Formaren gainean hausnartzea

### 3.2 Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Gaitasuna mailaka banatu da, honela.

## **1. MAILA**

Maila honetan dauden ikasleak gai dira informazio literala ulertzeko, bai narrazio testuetan eta bai azalpenezkoetan, betiere informazio hori testuan aurkitzeko erraza denean.

Ez dute zailtasunik testuan azaltzen diren esaldiak eta esamoldeak interpretatzeko; ulertzen dute esanahia zailtasunik gabe (hala ere, esan behar da esaldi eta esamolde hauek uler daitezkeela testua globalki ulertu gabe, edo testuaren oinarritzko egitura ulertu gabe).

Gai dira baldintza bat betetzen duen informazioa bilatzeko testuan, betiere testuak egitura esplizitua badu (epigrafedun atalak, etab) eta dedukzio xumeak ere egin ditzakete. Narrazio testu baten ideia nagusia antzematen dute, trama hagitz nabarmena den gai baten gainekoa denean. Azalpenezko testu batean badakite zeren gainekoa den testua.

Narrazioen kasuan, tramari jarraitzen diote, eta argudiozkoetan gauza xumeei erantzuten diete, eta baita jarraibidezkoetan ere. Argudiozkoetan eta jarraibidezkoetan galderarik funtsezkoenei ere erantzuteak ez du esan nahi testuaren asmoa ezta izaera ere ulertu dutenik.

## **2. MAILA**

Maila honetako ikasleak, 1. mailako lanak arrakastaz burutzeaz gain, gai dira alderdi horietan haratago joateko; bai informazioa bilatzea eskatzen duten lanen ulermenean (ez dute hainbeste aztarnarik behar eta gai dira ulertzeko, nahiz eta informazioa ez izan hain erraza aurkitzen edo ez izan hain agerikoa), bai testuaren ulermen okorra eskatzen duten lanetan (aurreko mailan baino pixka bat inplizituagoa).

## **3. MAILA (3+ barne)**

Maila honetako ikasleak, aurreko mailetako lanak egiteko gai izateaz gain, gai dira testuaren zati batean ardazturik ez dagoen informazioa, baizik eta testuaren bi zati desberdinetan bilatzea eskatzen dutenak arrakastaz burutzeko, Gai dira iritzi bat justifikatzeko arrazoiak bilatzeko. Zati baten edukia interpretatzen dute, kontuan izanda testuaren testuinguru zabalagoa. Testutik eratortzen diren ikuspuntu eta jarrerak ulertzen dituzte. Ulermen orokor ona dute, testuaren zentzuaz eta tesiaz jabetzen dira Testuaren egitura bereganatzen dute (indukziozkoa, dedukziozkoa...)

### **Mailen definizio numerikoa**

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazioa erdiestea:

Irakurtzeko gaitasuna Euskaraz	
Puntuazio tartekak	
1. maila	0-16
2. maila	17-20
3. maila	21-30
3. maila+	31-38

### 3.3. Itemak: informazioa, adibideak eta mailen araberako sailkapena

Maila bereko ikasleek galderei zuzentasunez erantzuteko joera dute, zailtasun maila batera iritsi arte, eta huts egiten dute beraiendako zailak diren beste batzuetan. Horrela, huts egindako galdera horiek informazioa ematen digute, jakiteko zeintzuk diren mailen arteko diferentziak.

Adibidez, 6. itema erraza izan da oro har, 19.a eta 13.a zailagoak izan dira eta 23. itema ikasle gaituenek baino ez dute ongi egin.

Aurreko itemak ondoren azalduko dira:

### 6. Kontakizuneko protagonistak artalde bati begira zeudela artaldeko ardi bat zegoen larretik beste larre baterantz abiatzen ikusi zuten. Zergatik aldatu nahi du ardi horrek larrez?

- A. Larre horretako belarra, ziurrenik, freskoagoa eta leunagoa izango delako.
- B. Artaldea zaintzen zuen zakurra atzetik zetorkiolako.
- C. Artzainaren ahots lodi eta zakarrak horrela agindu ziolako.
- D. Egunero eguzkiak gehien berotzen zuenean horrela egiten zuelako.

Erantzun zuzena	A
Puntuazioa	1
Mota	Itxia
Irakurketa prozesua	Interpretatzea
Gaitasun maila	1. maila
Asmatutakoen % 1. mailan	73,9
Asmatuen %	90,3

**19. Malaysian elkarrekin bizi diren hiru kulturak janzteko eta jan-edateko ohitura desberdinak dituzte oro har. Baina bada zerbait hiru kulturak onartuko luketena Malaysian. Aukeratu ondorengo baieztapenetatik guztiz zuzena litzatekeena.**

- A. Malaysian edari alkoholduak legalak direnez, hiru kulturatakoek edaten dituzte edari alkoholduak.
- B. Malaysian hiru kulturatakoek jan dezakete behi xerra patata frijituekin.
- C. Malaysian emakume guztiak ilea agerian ibil daitezke.
- D. Malaysian edozein herritarrek jan dezake txorizo bokadilo bat.

<b>Erantzun zuzena</b>	C
<b>Puntuazioa</b>	1
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Irakurketa prozesua</b>	Informazioa bilatzea
<b>Gaitasun maila</b>	2. maila

**13. Zein izango litzateke testu honen gai nagusia?**

- A. Malaysiako Kuala Lumpur izeneko tigrea.
- B. Asiako gizartearen ezaugarriak.
- C. Kuala Lumpurren elkarrekin bizi diren erlijio desberdinak.
- D. Kuala Lumpurreko eta Malaysiako kultura aniztasuna eta euren desberdintasunak.

<b>Erantzun zuzena</b>	D
<b>Puntuazioa</b>	1
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Irakurketa prozesua</b>	Ulermen orokorra
<b>Gaitasun maila</b>	3. maila
<b>Asmatutaen % 3. mailan</b>	62,8
<b>Asmatuen %</b>	69,6

**23. Kuala Lumpurri eta Malaysiari buruz testuak dioena irakurri ondoren, zure ustez ba al dago nolabaiteko antzekotasunik herrialde hartan gertatzen denaren eta gure herrialdean gertatzen denaren artean? Baietz uste baduzu, idatzi ikusten dituzun antzekotasunak:**

<b>Erantzun zuzena</b>	Irizpideen arabea
<b>Puntuazioa</b>	1
<b>Mota</b>	Irekia
<b>Irakurketa prozesua</b>	Edukiaren gainean hausnartzea
<b>Gaitasun maila</b>	3. maila+
<b>Asmatuen % 3. maila+en</b>	62,0
<b>Asmatuen %</b>	23,1

Ondoko taulak adierazten du itemak zein gaitasun mailari dagozkion. Hori, ordea, modu kualitatibo eta gutxi gorabeherakoan ulertu behar da. Izan ere, maila batean eta bestean dauden ikasleek izandako asmatuen ehunekoen artean izan daitekeen diferentzia ez baita beti ere aski zabala estatistikoki segurtatzeko erabat ikasle bat maila bati edo besteari dagokion.

Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen galderak maila desberdinei dagozkie, ebaluaturiko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute.

<b>Item zkia</b>	<b>Mailen araberako sailkapena</b>
1	2. maila
2	1. maila
3	1. maila
4	2. maila
5	3. maila
6	1. maila
7	2. maila
8	1. maila
9	3. maila+
10	3. maila+
11	3. maila
12	3. maila. Erantzun partziala 3. maila+. Erantzun osoa
13	2. maila
14	1. maila
15	2. maila. Erantzun partziala

	3. maila. Erantzun osoa
16	3. maila
17	3. maila
18	3. maila
19	2. maila
20	3. maila. Erantzun partziala 3. maila+. Erantzun osoa
21	3. maila
22	3. maila+
23	3. maila+
24	2. maila
25	1. maila
26	2. maila
27	2. maila
28	3. maila
29	3. maila
30	3. maila
31	3. maila+
32	2. maila
33	1. maila
34	1. maila

### 3.4 Eraitza orokorrak

**Estatistiken taula (Irakurmena Euskaraz)**

<b>Kop. osotara</b>	1.373
<b>Gaitasun kop.</b>	1.373
<b>Nesken kop.</b>	688
<b>Mutilen kop.</b>	685
<b>Gutxienezko puntuazioa</b>	3
<b>Gehienezko</b>	38

<b>puntuazioa</b>	
<b>Batez besteko puntuazioa</b>	23,06
<b>Desbideratze tipikoa</b>	6,30
<b>Nesken batez bestekoa</b>	24,21
<b>Mutilen batez bestekoa</b>	21,90
<b>1. maila (%)</b>	16,2
<b>2. maila (%)</b>	17,5
<b>3. maila (%)</b>	53,9
<b>3. maila+ (%)</b>	12,5

#### **Alderdi azpimarragarriak**


- Diferentzia handiak daude banakako puntuazioei dagokienez: gehienezko 38 puntuetatik gutxieneko 3 puntuetara.

- Kopurua osotara eta gaitasuneko kopurua bata bestearekin erkatuz gero, ondokoa da ikastetxean ez zeudelako proba egin ez duten ikasleen kopurua: 0

#### **Banaketa mailaka**

	<b>Ikasleen ehunekoa maila bakoitzean</b>
<b>1. maila</b>	<b>16,2</b>
<b>2. maila</b>	<b>17,5</b>
<b>3. maila</b>	<b>53,9</b>
<b>3. maila+</b>	<b>12,5</b>

### Irakurtzeko gaitasuna euskaraz



### Alderdi azpimarragarriak


- 10 ikasletatik kasik 7k erdietsi dute 3. maila edo 3. maila+; gai dira beraien adinari dagozkion irakurtzeko prozesuak gauzatzeko.
- 20 ikasletatik 3k irakurtzeko prozesuak oso justu egiten dituzte.
- 20 ikasletatik 3 ez dira gai irakurtzeko prozesuak egoki egiteko.

### Banaketa sexuaren arabera

Neskek mutilek baino 2,31 puntu gehiago erdietsi dituzte. Diferentzia hori handia da.


<b>Nesken batez bestekoa</b>	24,21
<b>Mutilen batez bestekoa</b>	21,90





### 3.5 Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazio orokorren banaketa.



**Alderdi azpimarragarriak:**

Puntuazioen banaketa, banaketa normalarekin erkatuz gero, honakoa da:

- Kamutsagoa, puntuazio kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan, kurtosia  $-0,38$  da.
- Asimetriko samarra da, ezkerrera zerbait mugitu da, eta asimetria koefizientea  $-0,29$  da

## 4. Matematikako gaitasuna

### 4.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatuen %

Proba 5 estimulak osatu dute, eta horietako bakoitzetik 4 eta 7 galdera atera dira. 27 galdera izan dira osotara eta horietatik 21 puntu batekin baloratu dira eta 6, 2 punturekin. Azken kasu honetan, puntu 1eko puntuazio partziala onartu da.

Itemak zailtasun maila desberdinekoak dira; batzuk oso errazak dira, %95eko asmatuekin; beste batzuk, aldiz, hagitik zailak dira, eta ikasleen %16ak baino ez dituzte asmatu.

27 galderei dagozkien lanak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesu desberdinekin harremanetan daude. Ondoko taulak erakusten du galdera bakoitzak matematika prozesu batekin duen erlazioa.

Item zkia.	Gehienezko puntuazioa	Irekia/Itxia	Asmatuen %	Ebaluaturiko prozesua
1	1	Itxia	79,9	Egoera ulertzea
2	1	Itxia	92,8	Ebazpen matematikoa
3	1	Itxia	84,7	Ebazpen matematikoa
4	2	Irekia	56,3	Ebazpen matematikoa
5	1	Itxia	87,4	Egoera ulertzea
6	1	Itxia	31,8	Egoera ulertzea
7	1	Itxia	79,9	Ebazpen matematikoa
8	1	Itxia	50,4	Ebazpen matematikoa
9	2	Irekia	49,4	Ebazpen matematikoa
10	2	Irekia	35,3	Arrazoitze matematikoa

11	1	Itxia	95,4	Egoera ulertzea
12	1	Itxia	55,9	Egoera ulertzea
13	1	Itxia	61,9	Ebazpen matematikoa
14	1	itxia	37,6	Ebazpen matematikoa
15	2	Irekia	38,3	Ebazpen matematikoa
16	1	Itxia	29,6	Arrazoitze matematikoa
17	1	Itxia	67,9	Ebazpen matematikoa
18	1	Itxia	57,4	Egoera ulertzea
19	1	Itxia	59,5	Arrazoitze matematikoa
20	1	Itxia	32,7	Ebazpen matematikoa
21	2	Irekia	16,1	Ebazpen matematikoa
22	1	Itxia	32,5	Ebazpen matematikoa
23	1	Itxia	83,8	Ebazpen matematikoa
24	1	Itxia	16,9	Ebazpen matematikoa
25	1	Itxia	86,8	Egoera ulertzea
26	1	Itxia	49,4	Ebazpen matematikoa
27	2	Irekia	25,6	Ebazpen matematikoa

## **4.2 Gaitasun mailak: esanahia**

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Gaitasuna mailaka banatu da, honela.

### **1. MAILA**

Maila honetan dauden ikasleek matematikako gaitasun maila oso baxua erakusten dute. Oso galdera gutxiri erantzun diete zuzentasunez. Gai dira bi urrats edo eragiketa jarraitu sekuentziatzeko problema aritmetikoak ebazteko orduan, adibidez, zerbait erostean gainerakoak kalkulatzeko.

Informazio argia lortzen ahal dute plano eta grafiko batetik, baina zailtasunak dituzte planteaturiko egoera geometriarekin erlazionatua dagoenean edo informazioa agerikoa ez denean, baizik eta zenbait datu harremanetan jartzea eskatzen duenean.

### **2. MAILA**

Maila honetan dauden ikasleak gai dira galdera errazei erantzuteko. Galdera horiek gaitasunaren garapenaren oinarrizko maila suposatzen dute. Bi urrats baino gehiago eskatzen dituzten problema aritmetiko batzuk planteatzen eta ebazten dituzte.

Gai dira oinarrizko galderari erantzuteko, emandako informazioa grafikoetan edo plano batean adierazten denean. Azalera kontzeptua ulertu arren, zailtasunak dituzte oinarrizko problemetan azalera kalkulatuak egitea beharrezkoa denean.

### **3. MAILA**

Maila honetan dauden ikasleek gaitasuna menderatzen dute maila honi dagokion moduan. Aurreko mailetakoa ebazten jakiteaz gain, ikasle hauek gai dira testuinguru errealei dagozkien egoerak eta galderak ebazteko orduan ezagutza jakinak aplikatzeko.

Ebazteko zenbait urrats behar dituzten aritmetika problemak ebazten dituzte, azalera kontzeptua menderatzen dute eta kontzeptu horren parte hartzea duten problemak ebazten dituzte. Taula edo grafiko moduan emandako informazioa modu zuzenean interpretatzen dute eta gai dira bizitza errealeko egoera mota zabal bat ebazteko: aparkaldi denbora eta aparkalekuaren prezioa erlazionatzea, denbora kalkulatzeko kontuan hartuz joan-etorriaren abiadura, batez bestekoak kalkulatzeko, etab.

Arrazoitze matematikoa erabiltzen dute azalpenak eta argudiatzeak emateko beraien lanari zein gai orokorreari dagokienez.

### 3. MAILA+

Ez da aurrekoarekiko maila desberdina; maila honetan baina, ikasleak aurrekoan baino gehiago menderatzen du gaitasuna.

Maila hauetan dauden ikasleek aurreko mailetan inplikaturiko lanak menderatzen dituzte.

Azpirarragarriak diren berezitasunak dituzte: geometria kontzeptuetan zehaztasuna dute, Pitagorasen teorema modu eraginkorrean erabiltzen dute eta problema konplexuenak ebazten dituzte informazioa grafiko edo tauletan ematen denean.

#### Mailen definizio numerikoa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazioa erdiestea:

Irakurmena Gaztelaniaz	
Puntuazio tartekak	
1. maila	0-11
2. maila	12-14
3. maila	15-25
3. maila+	26-33

#### 4.3. Itemak: informazioa, adibideak eta mailen araberako sailkapena

Maila bereko ikasleen joera da galderei zuzen erantzutea, zailtasun maila batera iritsi arte, eta huts egitea zailtzat jotzen dituztenetan. Hortaz, azken hauek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak, eta ondorioz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hausnarketarako helburu izan daitezkeenak.

Adibidez, 2. itema erraza izan da, orokorrean gai dira problema aritmetiko errazak ebazteko moneta-unitateekin; 7. itema zailagoa izan da, etxebizitza baten planoaren informazioa interpretatzeari buruzkoa. 19. itema zaila izan da eta geometriaren elementuen gaineko arrazoitze matematiko egoera bat planteatu du. Eta, azkenik, hagitx zaila izan den 22. itema; bertan beharrezko informazioa lortu eta zatikizko zenbakiekin lan egin behar dute.

Aurreko itemak ondoren azalduko dira:

2. Igandean gosaltzeko Nerea bere arrebak 5“croissant” erosi ditu eta bakoitzak 0,85 euro balio ditu. Ordaintzeko 10 euroko billetea baliatu du eta ondokoa itzuli diote:

- A. 5,15 euro
- B. 5,25 euro
- C. 5,75 euro
- D. 6,75 euro

<b>Erantzun zuzena</b>	C
<b>Puntuazioa</b>	1
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Prozesu matematikoa</b>	Ebazpen matematikoa
<b>Gaitasun maila</b>	1. maila
<b>Asmatuen % 1. mailan</b>	78,6
<b>Asmatuen %</b>	92,8

7. Etxearen azalera, guztira, ondokoa da:

- A. 85 m<sup>2</sup>
- B. 87,25 m<sup>2</sup>
- C. 90 m<sup>2</sup>
- D 95 m<sup>2</sup>

<b>Erantzun zuzena</b>	C
<b>Puntuazioa</b>	1
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Prozesu matematikoa</b>	Ebazpen matematikoa
<b>Gaitasun maila</b>	2. MAILA
<b>Asmatuen % 2. mailan</b>	69,4
<b>Asmatuen %</b>	79,9

19. Pentsatu da kartelaren tamaina egokiagoa izanen litzatekeela 2,20 m-ko zabalerako biribilkiaren luzera bikoitza duen zerrenda bat moztuta. Kasu horretan kartelaren azalera, guztira, ondoko izanen zen:

- A. 13,2 m
- B. 9,68 m<sup>2</sup>.
- C. 13,2 m<sup>2</sup>.

D. 9,68 m.

<b>Erantzun zuzena</b>	B
<b>Puntuazioa</b>	1
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Prozesu matematikoa</b>	Arrazoitze matematikoa
<b>Gaitasun maila</b>	3. MAILA
<b>Asmatuen % 3. mailan</b>	70,9
<b>Asmatuen %</b>	59,5

**22. Bidaia hasi eta lehenengo gasolindegian depositua bete dute, une horretan erregai deposituaren markagailuak  $\frac{1}{4}$  markatzen zuen. Deposituan sartu zuten gasolina ondokoa izan zen:**

- A. 15 litro
- b. 25 litro
- C. 45 litro
- D. 50 litro

<b>Erantzun zuzena</b>	C
<b>Puntuazioa</b>	1
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Prozesu matematikoa</b>	Ebazpen matematikoa
<b>Gaitasun maila</b>	3. maila+
<b>Asmatuen % 3. maila+en</b>	70,9
<b>Asmatuen %</b>	32,5

Ondoko taulak adierazten du itemak zein gaitasun mailari dagozkion. Hori, ordea, modu kualitatibo eta gutxi gorabeherakoan ulertu behar da. Izan ere, maila batean eta bestean dauden ikasleek izandako asmatuen ehunekoen artean izan daitekeen diferentzia ez baita beti ere aski zabala estatistikoki segurtatzeko erabat ikasle bat maila bati edo besteari dagokion.

Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen galderak maila desberdinei dagozkie, ebaluaturiko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute.



<b>Item zkia.</b>	<b>Mailen araberako sailkapena</b>
1	2. maila
2	1. maila
3	1. maila
4	2. maila. Erantzun partziala edo osatugabea 3. maila. Erantzun osoa
5	1. maila
6	3. maila+
7	2. maila
8	3. maila+
9	3. maila. Erantzun partziala edo osatugabea 3 maila+. Erantzun osoa
10	3. maila. Erantzun partziala edo osatugabea 3 maila+. Erantzun osoa
11	1. maila
12	3. maila
13	3. maila
14	3. maila+
15	3. maila. Erantzun partziala edo osatugabea 3 maila+. Erantzun osoa
16	3. maila+
17	3. maila
18	3. maila
19	3. maila
20	3. maila+
21	3 maila+ erantzun partzialak eta osoak
22	3. maila+
23	2. maila
24	3. maila+

25	1. maila
26	3. maila
27	3. maila. Erantzun partziala edo osatugabea 3 maila+. Erantzun osoa

#### 4.4 Eraitza orokorrak

##### Estatistiken taula (matematikako gaitasuna)

<b>Kop. osotara</b>	<b>5.735</b>
<b>Gaitasun kop.</b>	<b>5.650</b>
<b>Nesken kop.</b>	<b>2.793</b>
<b>Mutilen kop.</b>	<b>2.857</b>
<b>Gutxienezko puntuazioa</b>	<b>1</b>
<b>Gehienezko puntuazioa</b>	<b>33</b>
<b>Batez besteko puntuazioa</b>	<b>17,20</b>
<b>Desbideratze tipikoa</b>	<b>5,87</b>
<b>Nesken batez bestekoa</b>	<b>17,06</b>
<b>Mutilen batez bestekoa</b>	<b>17,33</b>
<b>1. maila (%)</b>	<b>18,5</b>
<b>2. maila (%)</b>	<b>16,4</b>
<b>3. maila (%)</b>	<b>56,7</b>
<b>3. maila+ (%)</b>	<b>8,4</b>

##### Alderdi azpimarragarriak

- Diferentzia handiak daude banakako puntuazioei dagokienez: gehienezko 33 puntuetatik gutxienezko puntu 1era.

- Desbideratze tipikoa handixkoa da, eta horrek esan nahi du puntuazioak dezente aldentzen direla batez besteko puntuaziotik.


- Kopurua osotara eta gaitasuneko kopurua bata bestearekin erkatuz gero, ondokoa da ikastetxean ez zeudelako proba egin ez duten ikasleen kopurua: 85

### Banaketa mailaka

Ikasleen ehunekoa maila bakoitzean	
1. maila	18,5
2. maila	16,4
3. maila	56,7
3. maila+	8,4

### Irudikatze grafikoa

#### Matematikako gaitasuna



### Alderdi azpimarragarriak

- 10 ikasletatik kasik 7k erdietsi dute 3. maila edo 3. maila+; gai dira beraien adinari dagozkion matematikako prozesuak gauzatzeko.


- 10 ikasletatik 2k prozesu matematikoak oso justu egiten dituzte.

- 10 ikasletatik 1 ez da gai prozesu matematikoak egoki egiteko.

### Banaketa sexuaren arabera


Mutilek neskek baino puntuazio handiagoa erdietsi dute: 0,27 puntu. Diferentzia hori ez da handia.

<b>Nesken batez bestekoa</b>	<b>17,06</b>
<b>Mutilen batez bestekoa</b>	<b>17,33</b>



### 4.5 Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazio orokorren banaketa.



### Alderdi azpimarragarriak

Puntuazioen banaketa, banaketa normalarekin erkatuz gero, honakoa da:

- Kamutsagoa, puntuazio kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan, kurtosia 0,67 da.
- Aski simetrikoa da, asimetria koefizientea 0,059koa da.